# IRAGARKIAK

## Beste iragarki ofizial batzuk

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 1211

*IRAGARKIA, 2024ko otsailaren 27koa, Industria Administrazioko Bizkaiko lurralde-ordezkariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita honako proiektu hau: baterien bidez energia biltegiratzeko «Bess Lezama» izeneko instalazioa jartzea Lezamako udal-mugartean (Bizkaia).*

Jendaurrean jartzen da aurretiko administrazio-baimena eskatu zaion instalazio elektrikoa, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan xedatutako ondorioetarako (2020-04-24ko EHAA) –dekretu horren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak–, eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikuluan (2013-12-27ko BOE) xedatutakoarekin bat etorriz.

Espedientea: 48-GE-Y-2024-00006.

– Eskatzailea: Bess Development 4 SL.

– Kokapena: Lezamako udal-mugartea.

– Exekuzio-materialaren aurrekontua: 19.301.928,97 euro.

– Helburua: baterien bidez energia biltegiratzeko sistema berria ezartzea, bertan dagoen 30 kV-ko sarera konektatuta.

– Instalazioaren ezaugarriak: Ignacio Olabarri Lasa industria-ingeniariak 2024ko urtarrilean sinatutako proiektuan adierazitakoak, espedientean daudenak.

– Eskaeraren helburua: aldez aurreko administrazio-baimena.

Eta hori guztia argitara ematen da nornahik proiektua azter dezan Sail honen Bizkaiko Lurralde Bulegoan (Bilboko Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua) edo url honetan: https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/

Bidezko iritzitako alegazioak –bi kopia– dagokion ordezkaritzan aurkeztu beharko dira, hogei eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bilbao, 2024ko otsailaren 27a.

Industria Administrazioko Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.